# Aplikazioa: Osabide Global (B40)

## Bertsio honen edukiaren dibulgazioa: V3.4.0

Data: 2026/03/18

**Informatika eta**
**Informazio Sistemetako Zuzendariordetza**

Aplikazioen Garapena eta Mantentze-lanak

# Aurkibidea

***1. PANEL CLÍNICO ... 3***

**1.1. TAREAS PENDIENTES: ANATOMÍA PATOLÓGICA ... 3**

1.1.1. Mejoras en el filtro de Anatomía patológica (PPM 80495) ... 3

***2. CENSOS ... 3***

**2.1. CENSO URGENCIAS ... 3**

2.1.1. Gestionar el orden de las alertas del censo de urgencias (PPM 75462) ... 3

***3. VISTA DEL PACIENTE ... 4***

**3.1. PLUGIN ULTIMAS ACTIVIDADES ... 4**

3.1.1. Mejoras en el Últimas Actividades: Desplegar iconos y unificar los mensajes emergentes (PPM 80499) ... 4

3.1.2. Mejoras en el Últimas Actividades: Añadir filtros descripción, centro y servicio (PPM 80499) 5

3.1.3. Mejoras en el Últimas Actividades: Mostrar título como descripción de los consentimientos informados (PPM 81884) ... 5

**3.2. PLUGIN EVOLUTIVO ... 6**

3.2.1. Perfil del Profesional (PPM 80498) ... 6

**3.3. ITZULBIDE ... 7**

3.3.1. Literal Cabecera Ventana (PPM 81557) ... 7

**3.4. PLUGIN GESTOR DE INFORMES ... 7**

3.4.1. Nuevas funciones formato Tabla [OSAKICROSS-1997] ... 7

**3.5. PLUGIN ALERTAS ... 8**

3.5.1. Mejoras en Alergias y Alertas (PPM 77417) ... 8

***4. OTROS ... 9***

**4.1. Actualización del icono y estado de las ambulancias pedidas en los Censos de Pacientes (PPM 77424) ... 9**

**4.2. Envío del consentimiento informado en la solicitud de transfusión (PPM 77753) . 10**

**4.3. Cribado de Cérvix: mostrar formulario de fin de cribado solo a pacientes de 65 años ... 11**

***5. BUG ... 11***

**5.1. Error al ver los informes de un paciente. (PPM 81597) ... 11**

**5.2. Error al acceder a interconsultas (PPM 81573) ... 11**

**5.3. Trazas Itzulbide (PPM 81763) ... 12**

**5.4. Peticiones CRIBADO llegan con el Anagrama del H. Donostia (PPM 81933) ... 12**

**5.5. Apertura capas web desde Presbide en Horizon (PPM 81694) ... 12**

# 1. PANEL KLINIKOA

## 1.1. EGITEKE DAUDEN ATAZAK: ANATOMIA PATOLOGIKOA

### *1.1.1. Hobekuntzak anatomia patologikoko iragazkian (PPM 80495)*

**Lehentasuna** iragazki berria gehitu da, eta lau aukera ditu:

- Guztiak
- Gaiztotasuna
- Ustekabeko aurkikuntzak
- Gaiztotasuna + ustekabeko aurkikuntzak.
  Iragazki honek kasu garrantzitsuak hautatutako irizpidearen arabera bistaratzen laguntzen du, eta informazioa berrikustea eta aztertzea errazten du.

Datuak erakustean, lehentasun mota bakoitza bisualki bereizten da:

- Gaiztotasuna triangelu gorri batekin identifikatzen da, eta errenkada hori kolorez nabarmenduta agertzen da.
- Ustekabeko aurkikuntzak triangelu horiarekin erakusten dira eta errenkada koloreztatu gabe agertzen da.
- Ustekabeko aurkikuntzak eta gaiztotasuna: bi ikonoak agertzen dira eta errenkada kolorez nabarmenduta.




# 2. ERROLDAK

## 2.1. LARRIALDIETAKO ERROLDA

### *2.1.1. Larrialdi-erroldako alerten ordena kudeatzea (PPM 75462)*

Alerten egoera-zutabeak ordenatzeko funtzionalitatea erantsi da (erroldaren

lehen 3 zutabeak).
Lehenik, egoeraren bat duten errenkadak jartzen dira, eta, ondoren, gainerakoak.







# 3. PAZIENTEAREN BISTA

## 3.1. AZKEN JARDUEREN PLUGINA

### *3.1.1. Hobekuntzak azken jarduereten: Ikonoak zabaldu eta mezu emergenteak bateratu (PPM 80499)*

'**Azken jarduerak**' ikonoak beti egongo dira ikusgai; aldiz, **'Beste txosten batzuk'** ikonoa goiko aldera eraman da, errazago aurkitzeko.




Mezu emergenteen diseinua bateratu da **'Azken jarduerak'** ikono guztientzat**.**




**3.1.2. *Hobekuntzak azken jarduereetan:*** Gehitu deskribapenaren, zentroaren eta zerbitzuaren iragazkiak (***PPM 80499***)

Pazientearen gertaeren zerrenda iragazteko aukera gehitu da, deskribapenaren, zentroaren eta zerbitzuaren arabera.
Zentroen eta zerbitzuen zerrenda jardueraren bat duten zentro eta zerbitzuekin bakarrik kargatuko da.




**3.1.3. *Hobekuntzak azken jarduereetan:*** Erakutsi izenburua baimen informatuen deskribapen gisa (PPM 81884)

Baimen informatuak bistaratzea aldatu egin da deskribapenaren eremuan **titulua** ager dadin, eta **azpimota** ordeztu da.

## 3.2. PLUGIN EBOLUTIBOA

### *3.2.1. Profesionalaren profila (PPM 80498)*

Gaur egun, pazientearen ebolutiboan profesionalak une honetan duen profila adierazten da. Profesional batek profil desberdinak izan baditu, kontsultatzen diren ebolutibo guztiak azken profilarekin ateratzen dira.
Hori aldatu egin da, eta, orain, ebolutiboa gordetzen denean, erabiltzaileak une horretan duen lanbide-profila barne hartuko da.
Esaterako, litekeena da gaur egun profesional bat BAME izatea eta erizain gisa sortutako ebolutiboak izatea.




Erizainak sortu zituela ikusten da ebolutibo bakoitzean, nahiz eta goiko aldean profesional hori bera BAME gisa ageri den.
Une honetan BAME delarik azken ebolutiboa aldatzen badu, BAME bezala grabatuta geldituko da, baina aurrekoak Erizaina izaten jarraituko du.
Eta Medikua izatera iristen bada, profil bakoitzarekin ebolutibo bat dezake:







Nolanahi ere, dagokion pazientearen ebolutiboa grabatzen edo aldatzen duen bakoitzean, hori egiten duen profesionalaren egungo profila gordeko da, eta, beraz, etorkizunean, profesionalak ebolutiboa idatzi zueneko benetako

profilak bistaratuko dira.
Dagoeneko existitzen diren ebolutiboak ezin dira eguneratu, ez baitakigu profesionalak zer profil zuen hura idatzi zuenean.

## 3.3. ITZULBIDE

### 3.3.1. *Leihoaren goiburuko literala (PPM 81557)*

Itzulbideko leihoaren literala aldatu da, eta, orain, “Itzultzaile ebolutiboa” jarri beharrean, “Berrikusi gabeko itzulpen automatikoa” jarri da.




## 3.4. TXOSTENAK KUDEATZEKO PLUGINA

### 3.4.1. *Taularen formatuko funtzio berriak [OSAKICROSS-1997]*

Txostenen kudeatzaileari 3 funtzio gehitu zaizkio. Funtzio horiek emaitza **taula** gisa aurkezten dute; baina eguneratu daitezkeen gainerako elementuen portaera bera dute:

- Edukia ezin da editatu.
- Txosteneko datuak freskatzean, edukia eguneratu egiten da.
- Saguaren eskuineko botoia taularen gainean sakatuz gero, testuinguru-menua erakusten du, eta elementua (taula) ezabatzeko edo freskatzeko aukera ematen du.




1. **Funtzioa - Konstanteen laburpena**

Gertakari batean erregistratutako konstanteak taula moduan aurkezten ditu: Lehen errenkadan goiburua dago, eta, ondoren, errenkada bat erregistratutako konstante bakoitzeko.

Constantes IQ Resumen

| Fecha/Hora | Saturación O2 | Presión Arterial | F. Cardiaca | F. Respiratoria | Temperatura |
|---|---|---|---|---|---|
| 18/09/2025 06:15 | | | | 9 | |
| 18/09/2025 08:30 | | | 66 | 10 | 36 |
| 18/09/2025 08:31 | | | 27 | 33 | |
| 18/09/2025 08:33 | | | 55 | 33 | |
| 18/09/2025 08:33 | | | 32 | 22 | 36 |
| 18/09/2025 08:40 | | 132/90 | 65 | | 36.5 |
| 18/09/2025 09:38 | | | 77 | | |
| 18/09/2025 10:00 | | | 88 | | |
| 18/09/2025 10:23 | | | 99 | | |
| 18/09/2025 11:22 | | | | 13 | |
| 18/09/2025 11:26 | | | | 14 | |
| 18/09/2025 12:22 | | | 78 | 14 | 38 |
| 18/09/2025 12:57 | | | 48 | | |
| 18/09/2025 13:00 | | | 33 | 22 | |
| 18/09/2025 14:45 | | | 68 | 15 | |
| 18/09/2025 17:32 | | | | 33 | |
| 19/09/2025 07:31 | | | | 31 | |
| 19/09/2025 08:00 | | 130/92 | | | |
| 19/09/2025 11:00 | | | 57 | | |
| 20/09/2025 08:00 | | | 76 | 14 | |
| 20/09/2025 11:11 | | | 44 | | |

2. **Funtzioa - IQ konstanteen laburpena.**
Ebakuntzan erregistratutako konstanteen taula aurkezten du.

3. **Funtzioa - IQ preskripzioaren laburpena**
Ebakuntza barruko preskripzioaren taula bat aurkezten du (dagoeneko existitzen den "Ebakuntza barruko preskripzioa" funtzioaren datu berberak). Goiburu hau du:

- Data eta ordua
- Medikamentuak
- P. aktiboa
- Bidea
- Dosia
- Erritmoa

General Vista

Prescripción Intraoperatoria

| Fecha/Hora | Medicamentos | P.Activo | Via | Dosis | Ritmo |
|---|---|---|---|---|---|
| 18/09/2025 09:20 | ACICLOVIR IV + FISIO 250ML | Aciclovir | INTRAVENOSA | 250 | 260,000 ML/H |
| 18/09/2025 10:00 | FENITOINA RUBIO 250MG 1 AMPOLLA 5 ML | | INTRAVENOSA | 250 MG | |
| 18/09/2025 11:00 | ASPIRINA BAYER | | ORAL | 100 MG | |
| 18/09/2025 18:10 | FENITOINA ACCORD 50MG/ML 50 AMPOLLAS 5ML SOLUCION INYECTABLE | Fenitoina | INTRAVENOSA | 250 MG | |

## 3.5. ALERTEN PLUGINA

### *3.5.1. Hobekuntzak Alergiak eta Alertak atalean (PPM 77417)*

“Aurreko multierresistentziak” alertaren ordez “Multierresistentzia aktiboak” jarri da. Alerta berri horrek azpitalde hauek ditu:

• Staphilococus aureus meticilin erresistentea (badago)

• Karbapenemasak sortzen dituzten mikroorganismoak

• Espektro hedatuko betalaktamasak (BLEE) ekoizten dituzten mikroorganismoak

• Bankomizinarekiko erresistenteak diren mikroorganismoak

• Linezolidarekiko erresistenteak diren mikroorganismoak

• Beste batzuk

Konfigurazio-gako berriak (ALERTAS_SAMR_NUEVO_DESACTIVO) adierazten du zer alerta erakutsi behar diren:

0 bada edo existitzen ez bada: “Multierresistentzia aktiboak” alerta berriekin lan egiten da.

1 bada, “Aurreko multierresistentziak” alertarekin lan egiten da.

Migrazio-prozesu bat abiaraziko da, “Aurreko multierresistentzien” ordez “Multierresistentzia aktiboak” jartzeko. Migrazioa egin arte, uneko alerta erakusten jarraituko da, eta, beraz, ALERTAS_SAMR_NUEVO_DESACTIVO gakoak 1 balioa izan beharko du.

# 4. BESTE BATZUK

## 4.1. Ikonoa eguneratzea eta Pazienteen Erroldetan eskatutako anbulantzien egoera (PPM 77424)

Anbulantzia bat eska daitekeen ospitaleratze- eta larrialdi-erroldeen kasuan, sagua anbulantziaren ikonoaren gainean uzten denean agertzen den testua eguneratu da, eta dagokion anbulantziaren egungo egoera erakusten da. Lehen, “Anbulantzia” testua baino ez zen agertzen.







## 4.2. Baimen informatua bidaltzea transfusio-eskaeran (PPM 77753)

Pazienteak baimen informatua eman duen ala ez adierazten duen datua bidaltzeko aldaketa egitea. Eguneratze honek ez du aldatzen aplikazioaren funtzionamendua, ez eta elementu bisualak ere.

Bidalketa hau transfusio-eskaera bidali ondoren egiten da, “eOdolbiden erregistratu” aukera erabilgarri agertzen zaigunean.




## 4.3. Zerbix-baheketa: baheketa-amaieraren formularioa 65 urteko pazienteei erakutsi soilik.

Orain arte, zerbixaren baheketa-proba baten emaitza anatomia patologikoan egiteke dauden zereginen leihoan ikustean, pazienteak 62 eta 65 urte bitartean bazituen eta baheketa-amaiera ez zela egokia irizten bazen, sistemak baheketa-amaierako formularioa irekitzen zuen, erabiltzaileak bete zezan. Bertsio honetatik aurrera, baheketa desegokiaren amaiera-baldintzak betetzen dituzten 65 urteko pazienteei soilik irekiko zaie inprimaki hori.

# 5. BUG

## 5.1. Errorea paziente baten txostenak ikustean. (PPM 81597)

Arazoa sortzen zen Kanpo Kontsultetatik Larrialdietako gertakari batera Zerbitzu arteko Kontsulten bidez iristean.
Gertakaria ez zen Larrialdi gisa kargatzen ari, txostenak sortzean datuak falta ziren (Zerbitzua eta Atala) eta horiek erakusten saiatzean errorea ematen zuen.
Akatsa zuzendu egin da, larrialdi-gertaerak zuzen karga daitezen.

## 5.2. Errorea Zerbitzu arteko Kontsultetan sartzean (PPM 81573)

Larrialdietatik “Zerbitzu arteko Kontsultetara” sartzeak errorea ematen zuen atalen zabalgarria ez zelako zuzen kargatzen.

Errorea zuzendu da.

## 5.3. Itzulbide arrastoak (PPM 81763)

Sexua eta akatsak ez ziren behar bezala gordetzen ari Itzulbideren arrastoetan.
Errorea zuzendu da.

## 5.4. BAHEKETA eskaerak Donostia Ospitaleko anagramarekin iristen dira (PPM 81933)

Anatomia patologikoko bolanteak berrinprimatzean H. Donostia erakusten da beti.
Akatsa zuzendu da, dagokion zentroa ager dadin.

## 5.5. Presbidetik web-geruzak irekitzea Horizonen (PPM 81694)

Horizon erabiltzen zenean eta ingurune horretan Internetik egoten ez zenean, erakundearen barrukoak ez diren Interneteko guneak ez ziren behar bezala ikusten irekitzen zirenean. Osakidetzaren sarean zeuden guneak baino ez ziren bistaratzen, hala nola “Alergiak & Alertak”, edo “Sinadura zentralizatua”.

Aldaketa hau egitearen arrazoia hau da: Osakidetzaren sare barrukoak ez diren URL guztiak nabigatzaile independente batean agertzea, eta, horrela, erabiltzailearen ekipoan bertan horizontetik kanpo ikusteko aukera ematea.